


EUSKAL TENIS FEDERAZIOKO

LIZENTZIEI BURUZKO ARAUDIA



1. ARTIKULUA

1.- Federazioko lizentzia agiri pertsonala eta besterenezina da. Horri esker, titularra Euskal Tenis Federazioko kidea izango da eta lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izango du, lehiaketetako arauen arabera.

Estamentu guztiek federazioko lizentzia eduki beharko dute, Euskal Tenis Federazioak, bertako lurralde-federazioek eta lurraldeaz gaineko beste edozein erakundek antolatutako lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izateko.

Federazioko lizentziadun estamentu guztiek Euskal Tenis Federazioak bere eskumenen arabera zehaztutako arauak, araudiak eta xedapenak beteko dituzte.

2.- Federazioko lizentzia bakarra izango da Euskadin, eta, horren bidez, Euskal Tenis Federazioko eta dagokion lurralde-federazioko kidea izango da titularra.


3.- Bi federazioetako kidea izateko, kasuan kasuko lizentzia lortu beharko da.

4.- Lurraldeko federazioak ados badaude, Euskal Tenis Federazioak borondatezko jolas edo zerbitzu txartel ez-ofiziala sortu ahal izango du, baina txartel horretako titularrak ezin izango du lehiaketa ofizialetan parte hartu eta ez da federazioko kidea izango. Txartel horri esker, beraz, zenbait kirol-jarduera ez-ofizialetan parte hartu ahal izango du edo zenbait zerbitzu lortu ahal izango ditu, besterik ez.

5.- Federazioak emandako lizentziari esker, titularrak goragoko mailako lurralde-lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izango du, indarreko arautegiak zehaztutako kasuetan eta baldintzetan.

2. ARTIKULUA

1.- Euskal Tenis Federazioa Euskadiko Autonomia Erkidegoko erakunde eskuduna da, bere kirol-modalitateko federazio-lizentziak egiteko orduan. Lurralde-federazioak, ordea, lizentziok bideratzeko erakunde eskudunak izango dira.



2.- Euskal Federazioak federatuen borondatezko kuota gehigarria jaso ahal izango du, zenbait zerbitzu eta jarduera finantzatzeko.

3.- Federazioak lurralde-federazio bakoitzarekin banatuko du lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia, Batzar Nagusiak onartutako baldintzen arabera eta urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 24.5. artikuluan xedatutakoaren arabera. Zenbateko garbia zein den jakiteko, zenbateko gordinari kendu beharko zaizkio goragoko mailako lurralde-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko aseguruari eta kuotei dagozkien zenbatekoak.

3. ARTIKULUA

1.- Federazioko Batzar Nagusiak lizentzien formatua eta edukia onartuko ditu, eta, lizentzia horietan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira ezinbestean.

2.- Lizentziak egiteko erabilitako euskarriaren baldintza teknikoak komunikazioaren teknologiak behar bezala ustiatzeko modukoak izango dira, eta Eusko Jaurlaritzak euskarri horietarako onartutako zehaztapen teknikoak beteko dira.


3.- Honako kontzeptu hauek agertuko dira lizentziaren agirian:

- a) Derrigorrezko aseguruaren kuota.
- b) Euskal federazioarentzako kuota, hau da, zenbateko garbiaren %65ekoa.
- c) Lurralde-federazioarentzako kuota, hau da, zenbateko garbiaren %35ekoa.
- d) Hala badagokio, goragoko mailako lurralde-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuota.

4.- Era berean, lizentziaren agirian bertan agertuko dira urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 25.4. artikuluan zehaztutako edukiak.

4. ARTIKULUA

Federazioko lizentziak urtebeterakoak izango dira, hau da, denboraldi guztirakoak.



5. ARTIKULUA

Pertsona fisiko berak Euskal Tenis Federazioak zenbait estamentutarako (kirolaria, epailea, teknikaria) emandako federazio-lizentzia bat edo batzuk eduki ahal izango ditu aldi berean.

Ez da onartuko pertsona fisiko berak Euskal Tenis Federazioak eta/edo beste edozein tenis-federazio autonomikok emandako indarreko federazio-lizentzia bat baino gehiago edukitzea aldi berean.

Pertsona bera estamentu bakar batekoa baino ez da izango, lehentasunen baremo honen arabera:

- Teknikaria.
- Epailea.
- Kirolaria.

6. ARTIKULUA


Federazioko lizentzia lortu ahal izateko, taldeek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte: Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkartearen Erregistroko alta (lehenengo urtean baino ez), Espainiako Tenis Federazioak urteko kanona ordaindu dutela egiaztatzeko egindako ziurtagiria eta lurralde-federazioekin zein euskal federazioarekin zorrik ez dutela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

Federazioko lizentzia lortu ahal izateko, teknikariek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte: gutxienez I. mailako tenis-entrenatzailearen (antzinako monitore nazionalaren) titulua edo monitore nazionalaren titulua daukatela egiaztatzen duen agiria (lehenengo urtean baino ez), datuen berri emateko orria eta urteko kuotaren ordainagiria.

Federazioko lizentzia lortu ahal izateko, epaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte: gutxienez arbitro nazionalaren titulua daukatela egiaztatzen duen agiria (lehenengo urtean baino ez), datuen berri emateko orria eta urteko kuotaren ordainagiria.

7. ARTIKULUA

Urtero, lizentziaren truke zenbat ordaindu beharko den onartuko du Batzar Nagusiak.



8. ARTIKULUA

Euskal Tenis Federazioko lizentziaren formatua I. eranskinean adierazitakoa izango da.

2009ko otsailaren 12an.

Jesús Paredes jauna
ETFko idazkaria

Igor del Busto jaunaren oniritzia
ETFko presidentea

I. eranskina

	URTEA
Estamentua	
Izen-abizenak	
Taldea	
Lurraldea	
Lizentzia-zenbakia Jaioteguna Mutua Noizkoa	
Euskara	
Presidentearen sinadura	Zigilua

Istripurik gertatuz gero, lizentzia honetako titularra Kirol Mutua Orokorreko onuraduna izango da.

LIZENTZIA-MOTA	Kuota Derrig. Aseg.	Kuota Euskal Fed.	Kuota Lur. Fed.
18 urtetik gorakoak			
14 eta 18 urte artekoak			
13 urtetik beherakoak			
ESPAINIAKO TENIS FEDERAZIOARI LIZENTZIA AUTONOMIKOAK HOMOLOGATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO KUOTAK			
Lizentzia-mota	Kuota		
18 urtetik gorakoak			
18 urtetik beherakoak			
LIZENTZIA HAU ESPAINIAKO TENIS FEDERAZIOAK HOMOLOGATU DU.			